

# BIDANKOZARTE

Lege gordailu: NA 2365-2015

## Bidankoze hiriko aldizkari historiko-kulturala

### Edukiak

- Bonaparte Funtsa..... 1
- Mariano Mendigatxaren ondare musikala..... 1
- Bidankozeko abizenak: Urzainki..... 2
- Urzainki yanki bat..... 2
- *Ferniando* etxea..... 3
- *Ferniandotarren* madarikazioa..... 3
- 1701en aurreko sakramentu-liburuak..... 4
- ...eta hurrengo zenbakian... .. 4

Kontaktua: Ángel Mari Pérez Artuch  
bidankozarte@yahoo.es

Eduki gehiago:

www.vidangoz.com/bidankozarte/  
Facebook  
twitter.com/bidankozarte


### Bonaparte funtsa

Otsailan, eta Mariano Mendigatxari bere heriotzaren mendeurrenean egindako omenaldia balitz bezala, Nafarroako Artxibo Orokorak bere web-orrian (Archivo Abierto) digitalizatutako *Bonaparte Funtsa* izeneko argitaratu du.

Funtsa honek Louis Lucien Bonaparte hizkuntzalariak euskalkiak ikertzeko Nafarroako bere laguntzaileei idatzarazitako 145 agiriez osatua dago.

Gure desagertutako Erronkariko uskara aztertzeke Bidankoze aukeratu zuen, bertan Prudenzio Hualde apezta eta Mariano Mendigatxa laguntzaile izaten. Hori dela eta, Bonaparte Funtsan Bidankozeri lotutako lau dokumentu aurki ditzakegu (*Ebanjelio segun San Mateok*, katixima, otoitzak eta hiztegi), baina Mendigatxak idatzitako gehiena ez dago hor, beste artxibo batzuetan baizik.

Bada, zorioneko gaude!



### Mariano Mendigatxaren ondare musikala

Mariano Mendigatxa sakonean ezagutzen ez duenak, aldizkaritxo hauetan bere inguruan ezagutzera ematen joan naizen kontuak besterik ezagutzen ez duenak, beharbada oraindik ez du irudikatzen utzi zigun gutzia.

Laguntzaile gisa izan zuten euskararen ikertzaileek propio eskatutakoaz gain, hau da, testu honen edo horren itzulpena, Bidankozeko Uskaran aditz baten konjugazioa nolakoa zen edota gure herrian objektu bat zein hitzarekin izendatzen zen, Mariano zahartzarora buru onarekin iristea eta Resurrekzion Maria Azkueri uskaraz eguneroko lanez eta garaiko Bidankozeko ohiturez idazteko eskatzearen zortea dugu. Horrela, gure antzinako hizkera betirako gordetzeaz gain, folkloreko hainbat konturen berri ere eman zuen, haietako asko desagertuta dagoeneko eta Mendigatxaren gutunak ez izanda, ezagutuko ez genituenak hainbat kasutan.

Kontu hauetako bat musika da, Bidankozen duela mende bat baino gehiago abesten ziren kantak. Ziur aski hau ez da Mendigatxaren ondarearen ezagunena, baina ez dut uste duela

ehun baino gehiago urteko zortzi abesti erreproduzitu ahal den herri askorik egongo denik... are gutxiago kontuan hartzen badugu Marianoren esanetan gure lurraldean 'jotak ez diren abestiak kantatzeaz lotsatzen ziren'. Eta erreproduzitu ahal direla diot abestien hitzez gain melodien partiturak ere (Estanislao Osesek garaiko Bidankozeko udal-idazkariak eginak Marianoren esanetan, gerora Florentina Aizagar Goiena [*Matias/Aizagar*] bidankoztarrarekin ezkondu zena) iritsi baitzaizkigu.

Horrela, abesti asko ez izan arren, denetarik pixka bat badago: kanta herrikoiak edo errondakoak (*Gaiaren gai ona*, *Irurean dantza* edo *Urzainkirik*), umoretsuak (*Goazen*, *goazen kementik* edo *Ttun ttun*), eliza-kantak (*Ots, ainguriek!*) eta lo-kantak eta guzti (*Botto ninak* edo *Moto nina*).

Abesti hauez gain, Marianok ia berrogei kopia ere utzi zizkigun, ustez jotako doinuarekin abestuko zirenak, oso gai anitzekoak.

Abesti hauek eta haien partiturak, baita koplak eta guzti haien itzulpenak [Bidankozarteko blogean](#) ikus ditzakezue.



Euskal artzainak AEBetan

## Urzainki yanki bat

Urzainki abizena emigratioarekiko lotura estua du, beharbada gure herrian oso ugaria izateagatik, beharbada ez, batek daki... Kontua da, ohiko joera jarraituz, gehienek Argentina izan zutela helburu.

Horrela, *putzua zeharkatu* zuten Urzainkiak baditugu *Lengorna, Arguedas, Hualderna, Pantxo, Ferniando* eta *Xoko* etxeetan, eta ziur aski ezagutzen ez dudak besteren bat egongo da.

Horrela, nire ustez Bidankozetik Amerikara joandako guztiak Argentinara joana zirelakoan nengoen, bestelako herrialde batera joandakoen erreferentziarik inoiz ez baitnuen izan... eta, hara non, AEBetara emigratua zen *Arguedas* etxeko Urzainki baten (agian bi) pistan jarri ninduten.

Gaiaren konplexutasunaren jakitun (AEBetan Urzainki baten datuak bilatu eta Bidankozekoa izatea), lehenengo saiakera ximple bat egin... eta sari! (eta ezuste!). Simon Urzainki Jauregi aurkitu nuen, 1882an Bidankozeko *Xoko* etxean jaioa, herria 1902an utzi zuena (behabada soldaduskara joan zen edo agian emigratu egin zuen hura saihesteko) eta 1925ean ezkongabe eta industriako langile bezala berragertu zena Los Angelesen Ignacia Arce Hernandez jostunarekin ezkonduz (Mexikon jaioa). Eta 1941ean agertu zen berriz ere, berriro ezkondu baitzen Juana Gonzalez Rosas alargun eta industriako langilearekin, Mexikokoa, bere lehen emaztea bezala, Simon hemen harakin bezala agertzen delarik.

Beraz, ikusitakoa ikusita, beldur naiz gehiegi urratu gabe aurkitu dudak hau izebergaren punta besterik ez ote den...

## Bidankozeko abizenak: Urzainki

Oraingoan Urzainki abizenak Bidankozen izan duen historia ezagutuko dugu. Abizena ia ohikoena izan da Bidankozen azken hiru mendeetan, soilik Sanz deiturak garaituta eta oso gutxiagatik.

Horrela, hain abizen ugaria izanda, imajinadezakezue nagipixka bat ematen duela hain zabaldua dagoen deituraren ikerketaren saltsan sartzeak... Baina egunen batean egin behar zen, beraz, *has gaitezen hasieratik*.

Noiz agertzen da Bidankozen lehenengo Urzainki? Ba, nik aurkitu dudak arte, badirudi Bidankozen abizen hori eraman zuten lehenengoa 1515ean (eta 1501ean ez zegoen) aurki dezakegu, Blasco Urzaynquy agertzen denean, ziur aski Urzainki herritik etorria (hori baitzen abizen honen jatorrizko esanahia, Urzainki herritik atera eta beste norabait bizitzera joana zena izena ematen baitzion, kasu honetan Bidankozera). Kontua da garai hartan gurasoengandik seme-alabenganako abizenen transmisioa oraindik ez zegoela guztiz finkatuta, bidean zebilela esan dezakegu. Hortik ia mende bat beranduagora arte ez dut Urzainki gehiagorik aurkitu (arrazoi nagusia biztanle / jabeen zerrendarik ez egoteagatik).

Dagoeneko 1605ean Pedro Urzainki bat agertzen da irainengatik beste herritarrari salatu zutenen artean, eta 1612-1613ko ondasun agiri batzuetan berriro agertzen da. Hemendik aurrean Urzainkitarren boom-a hasi zela esan dezakegu, bi hamarkada beranduago, 1634an, dagoeneko lau Urzainki badaude Bidankozeko 85 familiburuen edo auzokoen artean (ez dakigu denak Pedoren ondorengoak izango ote ziren), hiru *Iriarte* auzoan eta bat *Iribarne*koan, baina ez dakigu zehazki zein etxean bizi ziren. Zenbaki bera dugu 1645-1646an, lau haietako bat alkate

izatera iritsi denean (Juan Urzainki). 1677an dagoeneko bost auzokok badaramate abizena, eta haietako bat *pobre-eskale* zebilela aipatzen da.

XVIII. mendean joera mantendu zen eta abizena hedapenari eutsi zion, bere gehiengora 1726an iritsiz: bederatzi etxeko familiaburuek (hiru emakume eta sei gizon) Urzainki abizena eramaten zuten lehenengo tokian, emakumeetatik bi *arras pobreak* izanda, nahiko baldintza ohikoa alargun eta neska ezkongabeen artean.

### Duela 5 mende, dagoeneko 1515ean, baze- goen Urzainki bat Bidankozen


Ez dut aurkitu izenik duen bestelako zerrendarik XIX. Mendera arte, baina orduan, 1810ean zein 1816an, badaude Urzainki abizeneko zortzi auzoko, gorabehera txikiekin egunera mantendu den zifra (9 1847an, 8 1883an, 7 1898an, 8 1916an eta 7 1942an).

Beraz, erraz suposa dezakegu Urzainki bat izan ez duen etxe askorik egongo denik (eta are gutxiago auzokoen zerrendetan emazteen izenak ez direla agertzen, senarraren izena besterik ez). Horrela, auzoka, badaukagu *Iriburua* auzoan Urzainkiak egon direla *Diego, Cosme, Laskorna, Lengorna* eta *Arguedas* etxeetan; *Iriarte*koan, *La Santa, Artutx* (egungo *Pelaideira*), *Algarra, Navarro* eta *Hualderna* etxeetan); *Iribarnean, Xereno, Anarna, Kostiol, Pantxo, Ferniando, Ornat, Secretario, Arotx* (egungo *Arbizu*), *Santxena, Rakax, Xapatero, Txestas, Landa* eta *Llabari* etxeetan; eta *Egullorren, Malkorna, Xoko, Paxapan, Santos* (egungo *Mailusa*), *Anxelmo* (egungo *Calderero*), *Bikaria, Zinpintarna* eta *Arriola* etxeetan.

Laburbilduz, abizena Bidankozek historikoki izan dituen 70 etxe inguruetatik gutxienez 32 etxeetatik igaro da, ia erdia.

Horrela, denok neurri batean Urzainkitarrak izango garela esan dezakegu... [Info. gehiago [blogean](#)]

1515: Blasco Urzaynquy, Bidankozen aurki dezakegun bere abizeneko lehena [Iturri: AGN Comptos, 1515eko etxe zenbaketa]





Oraingo honetan aztertuko dugun *Iribarnea* auzoko etxea *Ferniando* etxea izenekoa da.

Etxe honen atentzioa emango digun lehen gauza bere izena da, Fernandoren batengandik datorrela suposatzen duguna, baina, beharbada, berak ahoskatuko lukeen bezala, *Ferniando* (edo *Ferñando*) bihurtu zena. Baina, zein Fernandoz ari gara eta noiz bizi izan zen?

Erantzuna Juan Fernando Urzainki Salbotx da, etxe honetan 1808an jaioa eta 1876an hila, eta 1843ko abenduan ezkondu zenetik familia-burua. Honek esan nahi du fatxada 1841ean datatzen den etxearen balizko eraberritze edo berreraikuntza bere amak eta bere aitaordeak egingo zutela (bere aita, aurrerago ikus dezakezuen bezala, Fernandok 2 urte besterik ez zituenean hil zen). Baina atal honetan sartu



Ferniandoko ate gainean dagoen Erronkaribarreko armarrria

aurretik, etxearen genealogia azken *Ferniandotar*rengandik harilkatuko dugu: Felipa eta Don Manuel.

Urzainki Hualde anaia-arreba hauek Gorgonio Urzainki Rekari [*Ferniando*] eta Javiera Hualde Mainz-en [*Navarro/Ferniando*] semeak ziren, baita Martin Urzainki Garate [*Ferniando*] eta Felipa Rekari Glaria-ren [*Burgiko Maistozarra /Ferniando*] bilobak ere, aitona hau Fernando Urzainkiren semea zelarik. Beraz, etxeari izena ematen diona eta ezagutu genituen azken *Ferniandotarrak* batu ditugu.

Fernandorengandik atzerantz, familiaren historia apur bat zailtzen da. Esan bezala, Fernandoren ama, Katalina Fermina Salbotx Glaria [*Salbotx/Ferniando*], alargundu egin zen honek bi urte baino ez zituenean, 1810ean. Ez zegoen bere senarra galtzeko une hoberik: 10 eta 2 urte arteko hiru seme-alabekin, ia 60 urteko aitagarrebarekin etxean, *Independentzia Gerra* betean (1808-1813) eta pasa berria zen *Konbentzioaren Gerratik* (1793-1795) oraindik berreskuratzen ari zen herri batean. Beraz, aukera izan zuenean, 1816an berriz ezkondu zen Josef Ramon Ustes Erlanz alargunarekin



Ferniando etxea, Ekuador karrikan

## Ferniando etxea

[*Burgi/Lixalte/Ferniando*], eta hura *Ferniando* etxera joan zen bizitzera, bere lehen ezkontzatik geratzen zitzaion alaba bakarrarekin, ondoren *Lixalte* etxea oinordetuko zuena. Bikote berriak ez zuen ondorengorik izan.

Beraz, badirudi bikote honi dagokiola ezagutzen dugun *Ferniando* etxearen itxuraldaketa, azken erreforma, *Ornat* etxera ematen duen rekarteko ate nagusia aldatu zuena gaur egungo *Ekuador* kalera, 1841ean egin zena, fatxadak adierazten duen bezala, eta Bidankozeko etxe batean dagoen egungo Erronkaribarko armarrri bakarra duena. Ziur asko, garai honetan hasiko zen etxearen goren maila, XX. mendearen erdialdera arte herriko abeltzainen etxe nagusietakoa bihurtu zituena.

Eta ezin dugu ziurtatu nola transmititu zen etxea Fernando Urzainkiren aitona-amonetatik atzerantz, ez dakigu haiek '*oinordeko*' iritsi ziren etxera edo agian hala izan zen aurreko belaunaldiren batean, baina argi dagoena da 1726 eta 1810 artean familia transmisioa eten egin zela, ez baitago ahaidetasunik 1726ko apeoan jabeen eta Fernandoren aitona-amonen artean.

Bada, honaino iritsi da *Ferniando* familiaren historia, beste edozein familian bezala, beti erraza izan ez zuena eta, ikusi dugunez, aurrera egiteko garai zailak gainditu behar izan zituena.

## Ferniandotarren madarikazioa

1810eko iraila hasi berria zen, eta, beharbada *Independentzia Gerraren* ondorioz (ez dirudite artzainak Bardeetan egoteko ezta almadiak jaisteko datarik ere), *Ferniando* familiako burua, Pedro Antonio Urzainki Sanz, Erriberan zebilen. Oraindik ezagutzen ez dugun arrazoren batengatik, Ebron ito zen eta gorpua Cadreitako jurisdikzioan berreskuratzen zuten. Susmo apur bat egon behar zen gai horren inguruan; izan ere, fiskalak Joachin Joseph Urzainki Martin [*Etxestasena*] eta Basilio Larranbe Monzon [*Larranbe*] bidankoztarrak epaitu zituen, denak 30 eta 36 urte artekoak. Ez dakit nola amaitu zen auzia, Nafarroako Artxibo Nagusian kontsulta

daitekeena (172258. prozesua).

Hamarkada batzuk geroago, 1887an, eta itotze hori *Ferniando* etxean ia ahaztuta egongo zenean, Domingo Urzainki Rekari izeneko Antonio Urzainkiren birbiloba bat, 8 urte besterik ez zituena, itota hil zen, '*Eusebio Perezen Landetako baratzearen ondoko putzu batean*'. Kasu honetan ere eginbideak bideratu behar izan ziren heriotza argitzeko, baina ez dut horri buruzko dokumentaziorik aurkitu.

Ikusitakoa ikusita, pentsatzekoa da *Ferniandokoek* ez luketela ura urrutitik ere ikusi nahi...

# 1701en aurreko sakramentu-liburuak

Egia esan, gai honek aspaldidanik kezkatzen ninduen: zergatik gordetzen dira soilik 1701-1702 urteaz geroztik Bidankozeko sakramentu-liburuak? Ibarreko herri gehienetan, ia hasieratik kontserbatzen dira (1580 inguruan), Izaban izan ezik, non 1813ko sutearekin galdu ziren. Orduan, zer gertatu zen Bidankozen liburuak desagertzeko?

Pentsatu nuen lehenengo gauza, gerra gatazka batekin zerikusia izan zezakeela, hala nola *Ondorengotza Gerrarekin* (1701-1713), nahiz eta gertagaitza izan, guda hura ez baitzen gure herrira gehiegi hurbildu.

Gogoan dut, bestalde, adinekoren bati entzun niola antzina eliza erre egin zela, baina ez zekiten zehazten noiz. Izan zitekeen, baina kasu horretan ziur aski Elizbarrutiko Artxiboan izango genuke horri buruzko informazioa, eta ez da horrela.

Bururatzeko zitzaidan azken aukera zen liburuak elizan ez gordetzea, bikario etxean baizik, eta han suterik ez izatea, zerbait arinagoa baizik (itoginak, saguak...), denborak aurrera egin ahala liburuak hondatuz joan eta, noizbait, alferrikakotzat joko lirakeena.

Bada, inoiz erantzunik aurkituko ez nuen galdera horietako bat izango zela pentsatzen zuenean, halabehar batek enigma hori, neurri batean behintzat, ebaztea eragin zuen.

Kontua da genealogiazale batek (Eloy Higuera, agur bero bat hemendik) nirekin jarri zen harremanetan Bidankozekoa zen bere arbaso baten aztarna jarraituz. Kontaktuan jarraitu genuen eta,

geroago, Done Jakue Ordenako Zalduna edo antzeko arbasoren bati buruzko informazioa nola aurkitu erakutsi zidan. Nik gure herriarekin harremana zuen Santiagoko zaldun bati buruz baino ez nekien: Raimundo Sanz y Dominguez, Hechokoa izan arren Miguel Sanz bidankoztarraren semea zena.

Eta kontua da erreferentzia lauso harekin bere espedientea kontsultatu eta ezusteko batzuk aurkitu nituela:

1.- Lehenengo eta nagusia da 1757an, Raimundoren genealogia ikertu zenean bere '*odol garbitasuna*' aztertzeo, 1701 baino lehenagoko sakramentu-liburuak oraindik ere parrokoaren (Pedro Marco Hualde) etxean gordetzen zirela, pinuz egindako kutxa handi batean, '*elizan ez zegoelako artxiborik*'. Han adierazten denez, parrokoak pergaminoan bildutako liburu bat erakutsi zuen, bost bolumen zituena, eta bertan sakramentu guztiak erregistratzen ziren. 1638an zuen hasiera, Bartholome de Blas Perez Martinen bataio-agiriarekin, Bartholome eta Cathalinaren semea (1638/02/04), eta Susana Mainzen ehorzketa-agiriarekin amaitzen zen (1701/03/29).

2.- Udaletxea, orduan, plazan zegoen (ez dakigu gaur egun dagoen plaza bera edo *Hiriaren Etxe Zahar*ean


aurreko espazioari plaza deitzen zioten), udalbatza-aretoko bi leihoek plazara ematen zuten, eta haren artxiboan akta eta kontu-liburuak baino ez zeuden.

3.- Adar honetako Sanz abizena (herrian beste bost Sanz zeuden) ez zen herrikoa jatorrian, Raimundoren aitona Villarreal de la Canalekoa baitzen (Huesca, hemendik 20 km ingurura) eta Bidankozera ezkondu zen. Gainera, printzipioz, leinu hau ez zen gaur egunera iritsiko gure herrian, oinordetzan hartu zuena Raimundoren aita baitzen, eta herria utzi zuen Hechora ezkontzeko (baina, agian oinordetza saldu zion bere anaiari, batek daki...).

4.- Raimundo Sanzen jatorriari buruz ikertzen saiatu ziren hamar gizon zaharrek (haietako zazpi 60 urtetik gorakoak ziren!) euskaraz gain gaztelania ere ulertzen zuten eta ez zuten interpreterik behar.

Laburbilduz, agerian jarri ditudan bitxikeria horiez guztiez gain,

1701 baino lehenagoko liburuak ez ziren erre, ezta gerra batean desagertu ere. Hori bai, 1757an hondatuta zeuden, eta, beraz, edo bide horri jarraitu zioten eta balio gabe geratu ziren... edo auskalo, agian sabaiaoren batean edo kutxa zaharren batean galduta daude berreskuratutako izateko zain...



Santiagoko Ordenako Zalduna  
[www.blasoneshispanos.com]

## ...eta hurrengo zenbakian...

*Bidankozarteko* hurrengo buletinaren gure Mariano Mendigatxa ospetsuaren heriotzaren mendeurrenaren aurretik argitaratuko den azkena izango da, efemeridea 2018ko uztailaren 31an izango baita.

Hori dela eta, 28. buletinaren ia monografikoa izango da. Bertan, bere ondarearen zati batez gain, Mendigatxa abizenak Bidankozen izan duen historia aztertuko dugu, *Mendigatxa* etxea oikonimiako atalean, eta argitalpenaren gainerako ataletan Mariano

Mendigatxaren bizitzako hain ezagunak ez diren beste alderdi batzuk aztertuko ditugu...

Bitartean, aldizkari hau gustatu zaizuela eta bedatse ona pasa dezazuela espero dut.